



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Etzegarate izenari buruzko txosten argigarria

Euskaltzaindiko Onomastika batzordeak, Olatzagutian bi mila eta hamalauko apirilaren hamarrean egindako bilkuran, beste gai batzuen artean, Idiazabalgo Udalaren eskariz, Antonio Berasategi Lardizabal jaunak era ofizialean *Etxegarate* izena duen mendateari buruz idatzitako txostena aztertu ondoan, **Etzegarate** aldaera hobetsi zuen.

Onomastika batzordeak gogoan izan ditu erabaki hau hartzeko aipatutako txostenean ageri diren eta Akademia honek haren osagarri bildu dituen idatzizko testigantzak eta inguruko euskaldunen ebakera. Batzordekideen aburuz, dokumentazioak (ikus gehigarria) argi erakusten du *Etxegarate* idazkera eta ebakera berriak direla, seguru asko oinarrian *etxe* hitza zegoelakoan sortua, eta forma araututzat erabiltzeko egokiena *Etzegarate* dela.

Toponimo honen ahozko erabilera euskaraz argia da: inguruko euskaldunek (Idiazabal, Zegama eta Ataungoek gutxieneko kontuan) *Etzeate*, *Etzeate* erabiltzen dute, nahiz eta izendapen ofiziala ere, *Etxegarate*, ezagutzen duten. Holakoetan ohikoa den bezala, gazteen artean *Etxegarate* gero eta erabiliagoa da, ofizialtasunaren eta hedabideetako eraginaren ondorioz.

Izen honen aipurik zaharrena 1208koa da. Agirian *Eicagaratea* ageri bada ere¹, egungo ortografia sistema erabiliz, *Eitzagaratea* idatzi beharko genuke segur aski. Hurrengo lekukotasuna 1406koa da, eta bertan izenaren lehenengo aldaketa ikusten da, jadanik amaierako artikulurik gabe ageri baita (*Eyçagarate*). Mende berean *Itzagarate* aldaeraren lehenengo lekukotza dugu. Geroztik *Itzagarate* aldaera nagusituz joan zen, eta XVII. menderako *Itzagarate*-ren aipuak ugariagoak dira *Eitzagarate*-renak baino. XVIII. mendean egoera korapilatu egin zen, eta hirugarren aldaera bat agertu zen, *Etzegarate* hain zuzen.

¹ Aipu zehatzak eranskinean daude.

XIX. mendean, bertatik igarotzen den bidea zabaltzeak mendate honen izena erabiliago eta ezagunago bihurtu zuen, eta aipamen asko daude, ez ordura arte bezala bakarrik udal artxiboan, izena prentsan eta liburuetan ere hasi baitzen erabiltzen. XIX. mendean *Etzegarate* izena baino ez da dokumentatzen. Tamalez, gaztelaniaz idatzitako agiriak direnez, eta gaztelaniaz euskarazko <tz> fonema irudikatzeko ikurrik ez dagoenez, izen hau era batera baino gehiagotara agertzen da idatzita: *Ecegarate*, *Echegarate*, *Etcegarate*, *Etsegarate*, *Ecegarate*, *Esegarate* eta *Ezegarate*.

Auziaren mamia gaztelaniak euskaraz <tz> idazten dugun soinua era unibokoan adierazteko ezintasunean datza. Dokumentuak erdaraz daudenez gero, eta idazteko modu estandarrik ez dagoenez gero, anabasa sortu da izen honen inguruan. Ezaguna denetik, historian zehar, Hegoaldean, batez ere *tc*, *tz* edo *ç* erabili izan dira, baina erabilera erabat sistematizatu gabe. Kasu honetan agerikoa den bezala, aurrekoekin batera *s*, *ts*, *z* eta *ch* ere erabili izan dira. Honako honetan XIX. mendean eraiki zen bide berriaren planoetan *Echegarate* idazkera hautatu zen, ez dakigu nola eta zergatik, agian izenean *etxe* zegoelakoan. Geroago, ofiziala zen *Echegarate* hau *Etxegarate* bihurtu zen, *ch* > *tx* aldatuta. Hala ere, deigarria da 1907an Donostian argitaratutako *La Constancia* egunkarian *Etzegarate* azaltzea, eta hau ez da kasu bakarra, 1852an argitara emandako *Guía del Viagero en España* liburuan ere *Etcegarate* ageri baita.

Aurreko guztia ikusita, batzordekideek, aho batez, ***Etzegarate*** izena onartu zuten Olatzagutian izandako bilkuran.

Eta hau edonon eta edonoren aurrean baliagarria izan dadin izenpetzen dut, Bilbon, bi mila eta hamalauko apirilaren hamaseian.

Euskaltzaindiko Onomastika batzordea

Gehigarria

A) Idatzizko iturriak

XIII. mendea

- *Auet medianedos Eznatea, Eicagaratea et Berrenoa* (1208, Nafarroako Artxibo Orokorra, I. kartularioa, 20.-23. or.).

XV. mendea

- *camino de Eyçagarate, camino de Yçagarate* (1406, Segurako Udal Artxiboa, C-5-II-1-3 eta 4).
- *mojon que esta en Eyçagarate* (1409, Segurako Udal Artxiboa, C-5-II-1-5).

XVI. mendea

- *calçadas de Eyçagarate , entre Arlepoa de Eyçagarate* (1533, Partzoneriaren Artxiboa, C-1-1-4).

XVII. mendea

- *mojon que esta en Yzagarate* (1622, Partzoneriaren Artxiboa, C-1-1-10; 1413ko eskritura baten kopia da).
- *hasta la someda deyzagaratea* (1622, Partzoneriaren Artxiboa, C-1-1-10; 1413ko epai baten kopia da).
- *mojon que esta en Ytagarete* (1622, Partzoneriaren Artxiboa, C-1-1-12; 1413ko eskritura baten kopia da).
- *mojon que esta en Yçagarate [...] hasta la someda de yçagaratea [...]* (1622, Partzoneriaren Artxiboa, C-1-1-12; 1413ko epai baten kopia da).
- *a la parte de Eyçagarate* (1622, Partzoneriaren Artxiboa, C-1-1-12).
- *a la parte de Eycagarate* (1622, Partzoneriaren Artxiboa, C-1-1-11).
- *camino deyzagarate* (1667, Partzoneriaren Artxiboa, C-5-1-1).
- *enyçagarate* (1667, Partzoneriaren Artxiboa, C-5-1-1).

XVIII. mendea

- *Deyzagarate*
 - 4 aldiz² (Partzoneriaren Artxiboa; Gipuzkoako Protokoloen Artxibategi Historikoa, Oñati).
- *Eizagarate*
 - 10 aldiz (Idiazabalgo Udal Artxiboa; Partzoneriaren Artxiboa; Gipuzkoako Artxibategi Nagusia, Tolosa; Gipuzkoako Protokoloen Artxibategi Historikoa, Oñati). Azken aipamena 1772. urtekoa da.
- *Eyzagarate* (1716, Nafarroako Artxibo Orokorra, 25. agiri-sorta, 17. zk.)
- *Eyzagarata*
 - *Eyzagarata* (1796, Nafarroako Artxibo Orokorra, 64. agiri-sorta, 94. zk.).
- *Izagarate*

²Horieta bi aipamen 1577ko beste dokumentu baten kopia den dokumentu batetik atereak dira.

- Behin (Partzoneriaren Artxiboa; Gipuzkoako Protokoloen Artxibategi Historikoa, Oñati).
- ❑ *Ezegarate*
 - Behin (Partzoneriaren Artxiboa). 1776. urtekoa.
- ❑ *Echagarate*
 - 2 aldiz (Partzoneriaren Artxiboa). 1727ko dokumentu baten alboan, lehenbizikoz (baliteke geroztik, argibidetzat egindako zehaztapena izatea).
- ❑ *Echegarate*
 - Behin (Partzoneriaren artxiboa). 1778. urtekoa.

XIX. mendea

- ❑ *Ecegarate, Etcegarate, Etzegarate*
 - 37 aldiz (Gipuzkoako Artxibategi Nagusia, Tolosan; Segurako Udal Artxiboa; Partzoneriaren Artxiboa).
 - *alto de Etcegarate* (1833, Vallejo, J. M., *Tratado sobre el Movimiento y aplicaciones de las aguas*, 678. or., Madril).
 - *pasando por el pueblecito de Idiazabal y por el puerto de Etzegarate*. (1852, Mellado, F., *Guía del Viagero en España*, 110. or. Madril).
 - *Ecegarate* (Carasatorre, R., *Barranca Burunda*, 526. or., 1993, Etxarri Aranatz). Aipamen horien artean, zortzitan, *Ezegarate* eta *Ecegarate* ageri dira.
- ❑ *Ezegarate*
 - *la altura de Ezegarate, la posición de Ezegarate* (1846, *Galería militar contemporánea*, I. alea, 376. or, Madril). Geroago testu bera ageri da ondokoan: Mellado, P. (1853), *Enciclopedia moderna: Diccionario Universal de literatura, ciencias, artes...* II. alea, 226. or., Madril.
- ❑ *Echegarate*
 - 21 aldiz³ (Pablo Gorosabel; Segurako Udal Artxiboa; Partzoneriaren Artxiboa).
 - Coello, F., (1848), *Mapa de Guipuzcoa*, Madrid.
 - Bolumar, F., (1851), *Plano de la parte del territorio de las provincias vascongadas y Navarra en que se han verificado las operaciones barométricas de la Brigada Topográfica*.
 - Antonio Cortazar, 1882
- ❑ *Etsegarate*
 - 6 aldiz (Azpeitiko Jabego Erregistroa; Segurako Udal Artxiboa; Partzoneriaren Artxiboa). Aipamen horietako hirutan *Esegarate* forma ageri da.

XX. mendea⁴

- ❑ *Etzegarate*
 - *La Constancia, Diario Integro Fuerista*, Donostia, 1907.
- ❑ *Echegarate, Etxegarate*
 - 5 aldiz (Iñaki Linazasoro; Idiazabalgo Udal Artxiboa). Udal artxibotik kanpokoak ez dira kontuan hartu.
- ❑ *Eceatealdea*
 - *Nombre de la finca: Arimasagasti; paraje o pago: Eceatealdea/Echegarateko-zubipea* (1945, Idiazabalgo Udal Artxiboa, 40. liburua: amillaramendua, 123. or.).

³ Behin *Etxegarate*.

⁴ 1945eko udal artxibategian ondoko testigantzak daude: *Eceatealdea; Echegarateko-zubipea. Libro 40, amillaramendua*, 123. or. 1945. Idiazabalgo Udal Artxiboa

□ *Etzeate*

- II. Larrozkondoko usokume jaurtiketa (2004) *Lekua: Larrozkondo gaina (Etzeate)*
- *Etzeate gaina SL, Ursuaran Auzoa, 22 (Etxegarate)* 2012ko telefono aurkitagia

B) Ahozko iturriak

Etze(a)ate eta *Etxegarate* dira gaur egun erabiltzen diren izenak.

Etxegarate da izen ofiziala eta, ondorioz, gehien erabiltzen dena. Hau nabaria da gazteen artean, eta gazteenek hori besterik ez dute erabiltzen. Zaharragoak ere *Etxegarate* esaten ikasten ari dira, baina lagunarteko hizketan *Etzea(a)te* esaten dute. Antonio Berasategi txostengileak dio 44 urte dituela eta *Etzea(a)te* baino ez duela entzun txikitatik zaharragoen ahotik.

1991-92an, Deiker-ek -Eusko Jaurlaritzaren aginduz- egin zuen galdeketan hamahiru lagunek *Etzeate* edota *Etzeaate* esan zuten (baita *Etzeate gaiñe* ere). Horietako lauk *Etxegarate* ere esan zuten. Batek bakarrik *Etxegarate* eta ez besterik. Beste batek, azkenik (87 urte; horietatik 40tik gora gain horretan artzain), *Etzeate* eta *Etseate* arteko zerbait esan zuen.